


MEMORIA 2019





AURKIBIDEA

I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.....	1
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera	2
Berdintasun Batzordea	2
II. Jardun ildoak	3
1. Prestakuntzan lortutako emaitzak.....	3
1.1. Irakasleentzako prestakuntza presentziala.....	3
1.2. AZPkoentzako prestakuntza presentziala	3
1.3. Ikasleentzako prestakuntza	3
1.4. Online prestakuntza	6
2. Ikerketan lortutako emaitzak.....	15
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa	15
2.2. BATERA: Lidergorako espazio mistoa	15
2.3. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria	16
2.4. UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia.....	16
3. Unibertsitate bizitza	17
3.1. Sexu aldagaia sartzeara	17
3.2. Hirugarren markagailua	17
3.3. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa	17
4. Unibertsitate hedakuntza.....	21
4.1. Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.....	21
4.2. Adin txikien zaintzarako kontziliazio baimenen ekiparazioa.....	21
4.3. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean	21
4.4. Diru laguntzetarako deialdia UPV/EHUn emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeke.....	23
4.5. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan.....	23
I. Eranskina	24
II. Eranskina	25

I. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza

UPV/EHUK, unibertsitate publikoa den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, besteak beste, Estatutuetak 4.3 artikulua: *UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta dibertsitatearen errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rolak eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkartza parekatua.*

Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, 2006an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza eta Berdintasunerako zuzendari kargua sortu ziren (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxan jartzera bultzatu baino urtebete lehenago. Zuzendaritza hori konprometitutako talde handi baten lanaren fruitu izan zen: gehienak emakumeak, eta euskal gizarteko eremu eta arlo desberdinetan aukera-berdintasuna lortzeko borrokan ibiliak. Zuzendaritza sortu zenetik asko izan dira aurrera eramandako ekintzak, batetik, zuzendaritzari berari esleitutako eginkizunak betetzeko, eta, bestetik, legeetan zehaztutako helburuak betetzeko; guztia unibertsitateko eremuan ezarrita.

Berdintasunerako Zuzendaritzak 2007an UPV/EHUko Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta emaitza gisa unibertsitateko kolektiboen – ikasle, AZP eta IIP – egoera azalerazi zuen sexuka banatuta unibertsitateko esparru ezberdinetan.

Diagnostiko hori egin ondoren, unibertsitateak, 2009ko maiatzean, erabaki zuen UPV/EHUko Berdintasun Batzordea eratzea, bere eginkizun nagusia izanik UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana egitea, eta bertan zehaztea unibertsitateak bere jardunean berdintasunaren arloan izango zituen jarraibideak. Urte bete beranduago, 2010-2013 aldirako Berdintasunerako I. Plana behin osatuta, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen kontseiluak onartzeko, eta, horrela, berretsi egin zen unibertsitateak genero berdintasunerako zeukan konpromisoa. I. Plana ezarri ondoren, 2014ko apirilaren 3ko erabakiaren bidez, UPV/EHUko Berdintasun Batzorde Intersektorialak (IRI eta AZPko funtzionarioen eta lan kontratadunen negoziazio batzordeek osatuak) unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2014-2017) onartu zuen.

2019-2022 aldirako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plan honek, II. planak bezalaxe, bat egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak zehaztutako filosofiarekin, horietan jasota baitago erakunde publikoek zein enpresek berdintasun planak egin behar dituztela indarreko arauetan zehaztutako helburuak betetzeko. Horrela, berdintasunerako III. plan hau osatzeko lanean unibertsitateko Berdintasun Batzordeak, ikastegietako

berdintasun batzordeek eta Berdintasun Batzorde Intersektorialak hartu dute parte. Plana behar bezala garatzeko, bestalde, Emakunderen laguntza dauka 2018ko uztailaren 2an sinatutako hitzarmenaren bidez.

Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Leire Imaz Zubiaur	leire.imaz@ehu.eus	946012172
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Idazkaria: Ana Isabel Ríos Hernández	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

Berdintasun Batzordea

Belen Bengoetxea Rementeria	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Koldo Telleria Andueza	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Ana Isabel Puente Martínez	Zientzietako irakasle-ikertzailea
Jokin Azpiazu Carballo	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Naiara Agirregoitia Marcos	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Eneritz Ugarte Velasco	AZPko langilea
Julen Zabala Alonso	AZPko langilea
Asier Brull Mesanza	Graduondoko ikaslea
Ainize Etxeberria Murgoitio	Graduko ikaslea

Era berean, **UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.**

II. Jardun ildoak

1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezten sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

1.1.- Irakasleentzako prestakuntza presentziala

UIPREn deialdien bidez, SAE-HELAZek antolatuta, hainbat prestakuntza ekintza eskaini izan zaizkie unibertsitateko irakasleei. Hemen 2019an eskainitakoak:

URTARRILEKO UIPRE IKASTAROAK					
IKASTAROA	CAMPUSA	ESKAERAK	IZEN-EMATEAK	GAINDITUAK	
				EMAKUMEAK	GIZONAK
Docencia comprometida con la perspectiva de género	BIZKAIA	43	24	17	4
EKAINENKO UIPRE IKASTAROAK					
Docencia comprometida con la perspectiva de género	BIZKAIA	17	11	8	3

Ikusten denez, 2019an eskainitako prestakuntza ekintzak antolatzeko orduan ahalegin berezia egin da irakasleek euren jardunean aplikatu dezaketen prestakuntza ikastaro bat eskaintzeko. Horren emaitza begi bistakoa da eta izen-emateak nabarmen igo dira iazko zenbakiekin alderatuz. Horretaz gain, irakasleek eurek ere modu positiboan balioetsi dute formakuntza hau.

1.2.- AZPkoentzako prestakuntza presentziala

2014tik urtero prestakuntza desberdinak eskaini izan ohi dira UPV/EHUko AZPko kideentzat. Hala ere, 2019an ez da modalitate honetako formakuntza espezifikorik eskaini. Urte honetan AZPko langileei eskaini zaizkien formakuntza ekintzak unibertsitate osorako eskainitako online ikastaroak izan dira.

1.3.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako,

2019an, aurreko urteetan bezalaxe, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek eman zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) 1.2.4. puntuari aurreikusitako ekintza betez, *Genero ikuspegia lantzen duten gradu eta master amaierako lanen garrantzia sendotzea Francisca de Aculodi eta María Goyri sariaren bidez*, alegia, UPV/EHUK FRANCISCA DE ACULODI sariaren VI. ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

2019ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Francisca de Aculodi sariaren V. edizioko sariak banatu ziren (2018an defendatutako GRALak) guztira 31 GRAL aurkeztu ziren. 2019ko udazkenean sariaren VI. edizioko lanak aurkeztu dira, guztira 30, eta hauen epaia 2020an izango da. Hemen aurkeztutako GRALen banaketa:

AURKEZTUTAKO GRADU AMAIERAKO LANAK		
	V. EDIZIOA	VI. EDIZIOA
Gizarte eta Lege Zientziak	20	13
Arte eta Humanitateak	8	9
Osasun Zientziak	3	6
Ingeniaritza eta Arkitektura	0	1
Zientziak	0	1
GUZTIRA	31	30

Azken edizio honetan, Gizarte eta Lege Zientzietan jaitsiera nabaria izan bada ere, beste jakintza esparruetan lan gehiago aurkeztu dira. Positiboki balioesten dugu Zientzietan edota Ingeniaritza eta Arkitekturan hautagairen bat izatea, esparru maskulinizatu hauetan zailtasunak handiagoak izaten baitira.

Ondorengo taulan ikus daitezke Francisca de Aculodi sariko V. Edizioko sarituak:

FRANCISCA DE ACULODI SARIKO V. EDIZIOKO SARIDUNAK			
Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Ana Julia Quezadaren kasua espainiar prentsan: emakume delinkuentearen eraikuntza</i>	Maialen Musatadi Salegui.
	Gaztelania	<i>Otras risas son posibles. El humor: una herramienta política de resistencia feminista</i>	Iraide Álvarez Muguruza.
Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Feminismoa eta euskal itzulpengintza. Kasu baten azterketa, frantsesetiko itzulpenetan"</i>	Irati Fernandez Arbelaitz
	Gaztelania	<i>Al este del Edén. El legado de Eva, el cainismo y otros temas bíblicos en la poesía de Carmen Conde y Ángela Figuera"</i>	Oier Quincoces Blas
Osasun Zientziak	Euskara	<i>Genero indarkeriaren prebentziorako osasun-hezkuntza programa baten diseinua nerabeentzako</i>	Olatz Sarasola Ugalde
		Accesit <i>Haurdunaldian emakumeek jasotzen duten indarkeria matxistari aurre egiteko erizainek eskaintzen duten etxez etxeko zerbitzuaren azterketa</i>	Izarne Alday Munilla
	Gaztelania	<i>Presentación clínica, abordaje terapéutico y pronóstico del infarto agudo de miocardio: ¿existen diferencias de género?</i>	Alain Urones Goikoetxea
Ingeniaritza eta Arkitektura	Euskara	Hutsik	
	Gaztelania	Hutsik	

UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyni saria

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) lan ildoari jarraiki UPV/EHUK MARIA GOYRI sariaren VII. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK		
	Guztira	Jakintza arloen arabera
VI. Edizioa (2016/2017)	17	10 Gizarte eta Lege Zientziak 6 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak
VII. Edizioa (2017/2018)	6	3 Gizarte eta Lege Zientziak 3 Arte eta Giza Zientziak
VII. Edizioa (2018/2019)	16	8 Gizarte eta Lege Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak 1 Zientziak 2 Osasun Zientziak 1 Ingeniaritza eta Arkitektura

Ondorengo taulan 2019ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean saritutako lanak:

MARIA GOYRI SARIKO VIII. EDIZIOKO SARIDUNA	
<i>No woman's land: XXI. Mendeko euskal emakume olerkarien gatazka guneen irakurketa proposamena: zortzi olerkari, zortzi</i>	Ane Miren Villagrán Arrastoa

Maria Goyri saria kontsolidatua dago, eta gero eta ikasle gehiagok parte hartzen dute. Aurtengo edizioan, Francisca De Aculodi sarian bezala, jakintza esparru guztietatik jaso dira hautagaiak. Horretaz gain, VII ediziotik hautagai kopurua nabarmen igo dela ikusten da.

1.4.- Online prestakuntza

2019an ere online prestakuntzen eskaintza mantendu egin da ikasturtean zehar eskainitako bi deialdietan.

Hizkuntza inklusiboa

Pikara Magazine komunikabide digitalak *Hizkuntza Inklusiboa* ikastaroa prestatu zuen euskaraz zein gaztelaniaz UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat eta bigarren ediziotik UPV/EHU barneko irakasleen zuzendaritzapean eskaintzen da.

Izendatzen ez dena ez da existitzen lemapean, kazetari, filologo pedagogo eta antropologoen hizkuntzaren garrantzia azpimarratu dute kultura patriarkalaren elementuak hedatzeko orduan.



Hizkuntza inklusiboko ikastaroarekin batera, Hizkuntza inklusiboko gida osoa eta gida azkarra ere Unibertsitate osora banatu dira, komunitate osoak erreminta hauek eskuragarri izan ditzan.

Hezkidetzaren alde busti!



Hezkidetzaren alde busti! ikastaroa *Hezkidetzaren esku hartzen* ikastaroko profesionalek prestatu zuten UPV/EHUko berdintasunerako Zuzendaritzarentzat eta bigarren ediziotik zuzentzaile panel osoa UPV/EHUko irakasleek osatzen dute.

Ikastaro honen helburua etorkizunean adin txikikoekin lan egingo duten ikasleak hezkidetzan formatzea da. Hori dela eta, fakultate konkretu batzuetako ikasleei baino ez zaie eskaini: Letrak, Hezkuntza, Hezkuntza eta Kirola, HEFA eta Lan Harremanak eta Gizarte Langintza. Ikastaro hau, bestek ez bezala, euskaraz bakarrik eskaini da eta 75 orduko iraupena du.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak

Bi ikastaro hauek, euskaraz zein gaztelaniaz, Emakunderekin elkarlanean eskaintzen dira. Emakundek materialak eta zuzentzaile panela prestatzen dituen bitartean, UPV/EHU ikasle parte-hartzaileez eta plataformaz arduratzen da.

Emakume eta gizonen berdintasuna ikastaroak ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea izan du helburu. Gainera, genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira. Horretaz gain, mugimendu feministaren historia ezagutzea nahi da, egungo egoera ulertzeko ezinbesteko marko gisa.





Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erresistentziak eta erresistentziak ikastaroak ikasleek gure gizartean maskulinitasunaren eraikuntza soziala aztertzeko gaitasun teoriko eta praktikoa garatzea izan du helburu. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egitea da asmoa, eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitasunaren adierazpen anitzak ere jorratuko dira, baita horrek emakumei eta gizonei beraien ekartzen dizkien ondorioak ere.

Sexu-dibertsitatea

Ikastaro honekin online ikastaroen eskaintza indartu eta sakontzea da UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburua. Horretarako Gizonduz programako taldearekin harremanetan jarri eta Gran Canariako kabildoan martxan izan duten ikastaro hau gure komunitatera ekartzea lortu dugu. Ikastaroaren egileen artean estatu mailako hainbat aditu daude, hala nola, Lucas Platero, Noemí Parra edo Gerard Coll.

Ikastaro honen helburua bizi dugun gizartearen hausnarketa eta ikerketa gune bihurtzea da. Bertan genero identitatearen definizio hegemonikoak ikertuko ditugu eta, baita, hauek gure bizi eta pentsatzeko moduan duten eragina, desberdintasun eta diskriminazioak sortuz. Gizarte normalizazioa sexu, genero, genero-adierazpen eta sexu orientazio arauetan oinarrituta dago. Ezarritako arauak jarraitzeak "normal" kategoria ematen du eta eskubide-pribilegio batzuk eman. Beste era batzuetan pentsatu, sentitu eta jokatzeko dutenek aldiz ez dituzte eskubide-pribilegio hauek izango.

Sexu aniztasuna eta genero identitatea esanahi anitzeko kontzeptuak dira eta esperientzia konplexuak sortzen dituzte gizarte testuinguru eta momentu historikoak baldintzatuta.






I Online ikastaroen III. Edizioa, 2018/2019 ikasturtea


ONLINE IKASTAROA	NORENTZAT	IRAUPENA	ESKAINITAKO PLAZA KOPURUA	IZEN-EMATEAK			AKREDITATUTAKO PERTSONAK		
				EMAKUMEA	GIZONAK	EZ-BITARRAK	EMAKUMEA	GIZONAK	EZ-BITARRAK
Emakume gizonen berdintasuna (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	260	377	95	6	128	39	3
Hizkuntza inklusiboa (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	363	96	9	113	34	0
Maskulinitateak. Gizonak berdintasuna: erronkak erresistentziak (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	260	247	90	6	104	36	2
Hezkidetzaren alde Busti!	Ikasleentzat (HEFA, Hezkuntza, Kirola, Gizarte Langintza eta Psikologia)	75 ordu	100	114	24	3	42	7	0
GUZTIRA			700	1101	305	24	387	116	5

BERDINTASUNA




1 Irudia: Berdintasuna ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa

HIZKUNTZA INKLUSIBOA




2 Irudia: Hizkuntza Inklusiboa ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa


MASKULINITATEAK



3 Irudia: Maskulinitateak ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



4 Irudia: Hezkidetza ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



5 irudia: Ikastaro guztietako akreditatutako pertsonen ehunekoa




II Online ikastaroen IV. Edizioa, 2019/2020 ikasturtea, udazkena

ONLINE IKASTAROA	NORENTZAT	IRAUPENA	ESKAINITAKO PLAZA KOPURUA	IZEN-EMATEAK			AKREDITATUTAKO PERTSONAK		
				EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EZ-BITARRAK
Emakume eta gizonen berdintasuna (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	192	95	0	87	19	0
Hizkuntza inklusiboa (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	259	40	4	80	20	1
Maskulinitateak . Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak (euskaraz eta gaztelaniaz)	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	200	160	41	2	70	25	0
Hezkidetzaren alde Busti!	Ikasleentzat (HEFA, Hezkuntza, Kirola, Gizarte Langintza eta Psikologia)	75 ordu	100	88	33	3	54	14	1
GUZTIRA			700	699	209	9	291	78	2




BERDINTASUNA




1 Irudia: Berdintasuna ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa

HIZKUNTZA INKLUSIBOA




2 Irudia: Hizkuntza Inklusiboa ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa


MASKULINITATEAK



3 Irudia: Maskulinitateak ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



4 irudia: Hezkidetza ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



5 irudia: Ikastaro guztietako akreditatutako pertsonen ehunekoa

2019an izan diren bi edizioak alderatuta, lehendabizikoak, aurreko edizioetan bezalaxe, parte-hartze handia izan du. Bigarrenean aldiz, jaitsiera nabaria antzematen da ikastaro guztietan. Jaitsiera hau emakume eta ez-bitarretan oso nabarmena bada ere, gizonetan ez da hainbeste nabaritu. Datu hauek eskuetan, ahalegin berezia egin behar da ikastaro hauek indartu eta finkatzeko; bai difusioa handituz baita ikastaroen eskaintza zabalduz.

2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek, UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko diagnostikoak (2007-2011) eta urtero UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ateratzen duen *Berdintasuna zenbakitan* txostenak egoera bera azaleratzen dute: ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Ekintza positibo bezala ikerketa proiektuak aipa genitzake, berdintasunaren arloan eta gutxiegi ordezkaturata dauden beste batzuetan, 2 puntu gehiago ematen dira, Ikertzaile Nagusia emakumea bada.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko **AKADEME** programa

Berdintasunerako Zuzendaritzak, HELAZekin batera, **AKADEME programa** ezarri eta eskaintzen du 2015/2016 ikasturtetik, UPV/EHUko emakumezko akademikoen lidergoa bultzatzeko. Haren helburu nagusia emakume akademikoen lidergo gaitasunak hobetzea da, eta parte hartzaileen arteko babes sare batean parte har dezaten sustatzea, non erantzukizuneko lanpostuetan sartzeko edo haietan irauteko ahalduz kolektiboa motibatu eta sustatuko den. Orain arte Akademe programan 150 emakumek baino gehiagok hartu du parte.



Akademe programaren bosgarren edizioa 2019ko urriaren 3an hasi zen eta 2020ko otsailaren 13an amaituko da. Aurten, azken urteetan ez bezala, talde bat osatu da Gipuzkoan eta beste bat Leioan eta orotara 34 emakume ari dira parte hartzen.

2.2.- **BATERA: Lidergorako espazio mistoa**

Akademe programa aurrera joan ahala gero eta eskari gehiago jaso dira lidergoari buruzko espazio misto bat osatzeko. Hauei erantzuna eman nahian 2019ko maiatzean **Batera lidergorako espazio mistoko lehen edizio pilotua** ospatu zen. Bertan, Leioan eginiko bi saiotan, hamar emakume eta hamar gizon bildu ziren lidergoari buruzko hausnarketa komun bat egiteko asmotan. Edizio pilotua izaki parte-hartzaileak UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik aukeratu ziren: emakumeen kasuan lehendik Akademe programan izandakoak eta gizonezkoak, berriz, zentroetako berdintasun batzordeetako kideak edota gai hauekin lotutako proiektu edo lanetan jardundakoak. Parte-hartzaileen balorazioak onak izan ziren eta ikusteko dago ea bigarren edizio bat egingo den 2020. urtean.

2.3.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria

Ikerketan genero ikuspegia bultzatzeko, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III Planaren 2.1.2. - *Micaela Portilla Saria sendotzea (ikasketa feministei edo generoari buruzko UPV/EHUko tesi onenari ematen zaion saria)*- ekintza betetzearren, UPV/EHUk MICAELA PORTILLA VITORIA Sariaren VI ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

2019ko Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean Micaela Portilla Sariaren VI. Edizioko saria banatu zen 10 parte-hartzailearen artean. Aurten VII. Edizioko deialdia atera da eta 5 parte-hartzaile izan ditu, dena den, edizio honen irabazleak saria 2020ko ekitaldian jasoko du. 2013tik banatzen da eta urte hauetan zehar **40 hautagaitik gora aurkeztu dira**.

Micaela Portilla sariko azken bi irabazleak		
Edizioa	Tesia	Egilea
VI. Edizioa (2017)	<i>La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica</i>	Marina Sagastizabal Emilio-Yus
VII. Edizioa (2018)	<i>Del paisaje al cuerpo: una crítica feminista de la patrimonialización del encaje en la Costa da Morte</i>	Guadalupe Jiménez Esquinas

2.4.- UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia

Deialdi honek **jardunaldietara, biltzarretara edo mintegietara joateko (genero ikuspegia txertatzen duen edo/eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoa den txosten bat, komunikazio bat, poster bat, etab. aurkeztuta)** laguntza barne hartzen du, doktorego tesi batekin zerikusia duten lanak egiteko eta/edo ezagutarazteko helburuarekin. Doktorego tesiak UPV/EHUk izena emanda egon beharko du eta ikasketa feministen eta generoko arloko ikerketa barne hartu beharko du, bai eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoak ere. Arreta berezia eskainiko zaie ikerketa feminista eta generoko gutxi dituzten ezagutza arloei: **irakaskuntza teknikoak, zientzia esperimentalak eta osasun zientziak**.

Aurtengo edizioan, **2019** urteari dagokionean, bigarren deialdia, ekainetik abendura artekoa, bertan behera utzi da aurrekontu arazoak direla eta. Hala ere, 18 laguntza onartu dira, guztira **8.246'35 euro** emanez.

I Eranskinean zerrendatuta daude 2019an laguntza eman diegun ikasleen zerrenda.

3. Unibertsitate bizitza

3.1.- Sexu aldagaia sartzea

UPV/EHUUn datuak sexu aldagaia aintzat hartuta biltzen dira beti eta normalduta dago sexu aldagaia duten datuen bilketa eta transferentzia. Datu hauei esker urtero argitaratzen dugu UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzatik *Berdintasuna Zenbakitan* txostena. Txosten honek unibertsitatearen argazki kuantitatibo bat eskaintzen digu emakume eta gizonen presentziari dagokionez, desberdintasunak identifikatu eta lan ildoak markatzeko helburuarekin.

3.2.- Hirugarren markagailua

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak, 2017ko azaroaren 2an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearen proposamenari jarraikiz, UPV/EHUko dokumentu ofizialetan sexua identifikatzeko **HIRUGARREN MARKAGAILU** (Ez-Bitarrarena) bat jartzea onartu zuenetik lan-ildo berri bat zabaldu da Berdintasunerako Zuzendaritzarentzat. LGTB kolektiboetako ikasleen beharrezanean erantzunez, lehen pausu gisa, **KOMUN MISTO** gisa identifikatu zitezkeen komunak identifikatzeari ekin zitzaion. 2018eko neguan UPV/EHUko zentro guztiak begiratu ziren bertako komunen egoera aztertzeko eta urte amaieran jada zerrenda prest zegoen.

2019eko urtarrilean identifikatutako komunitan errotulua aldatzeari ekin zitzaion. Helburu nagusia zentro guztietan **KOMUN MISTO** bezala identifikatu zitezkeen komunak bat izatea da. Kategoria hau izateko komunek ondorengo baldintzak bete behar zituzten: irisgarritasuna, pixatokitik ez izatea eta toki diskretuetan egotea. Aurtengo neguan zehar zentro guztietara bidali dira errotuluak aldaketetarako informazioarekin batera eta 2020an lehen berrikuspena egitea espero da.

Aldaketa guztietan bezala, hemen ere erresistentzia bakan batzuk izan dira, baina orokorrean proiektu honek oso harrera ona izan du unibertsitateko komunitatean, bereziki ikasleen artean.

3.3.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

2018ko ekainetik Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa indarrean da eta 2018ko abendutik Genero Indarkeriazko Arretarako Batzordea ere eratuta dago, azken hau da Berdintasunerako Zuzendaritzara heltzen diren indarkeria kasuez arduratzen dena.





- **Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren aurkezpenak:**

Protokoloak berak arautzen duen bezala, urtero aurkezpenak egin behar dira hiru campusetan protokoloa unibertsitate osoan ezagutzera emateko. Aurkezpen hauek 2019ko otsaila eta martxoa bitartean egin ziren eta, lehen aldia zenez, bederatzi zentro aukeratu ziren. Zuzendaritzatik egin ziren aurkezpenak zuzenean eta protokoloa egiteko prozesuan kanpo aholkulari lanetan ibili zen Aitziber Bañuelosen parte-hartzea ere izan zen.

PROTOKOLOKO AURKEZPENETAKO PARTE-HARTZAILEAK						
EMAKUMEAK		GIZONAK		GUZTIRA		
309	%79'03	82	%20'97	391		
IIP		AZP		IKASLEAK		GUZTIRA
83	%21'22	48	%12'28	260	%66'50	391

9 Irudia: Protokoloko aurkezpenetako parte-hartzaileak sexu eta kategorietan banatuta

Ondorengo taulan laburbilduta daude 2019ko urtarriletik abenduaren 18a arte artatutako kasuak:


	Salatzaileak		
	Ikasleak	AZP	IIP
Indarkeria fisiko-psikologikoa	7	1	0
Sexuagatiko jazarpena	2	0	0
Sexu jazarpena	1	0	0
Indarkeria psikologikoa	1	0	0
GUZTIRA	11	1	0

10 Irudia: Artatutako indarkeria kasuak

- **UPV/EHUko Genero indarkerien aurkako protokoloa kartela egiteko sariaren II. Edizioaren deialdia:** Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ezagutarazi eta ikasleen artean zabaltzeko, UPV/EHUko berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo deialdia antolatzen du (5. Artikuluaren arabera *Hartu beharreko neurriak*). Honen helburua Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa ikasleen artean ezagutzera ematea da, hauek baitira indarkeria kasu gehien bizi dituztenak. Aurten bigarren edizioa ospatu da arrakasta handiarekin eta, guztira, 53 kartel aurkeztu dira. Iaz ez bezala, kartel hauen sari banaketa Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean izango da. Hemen saridunak:
 - **Epaimahaiaren saria:** Javier Vaz Vega
 - **Publikoaren saria:** Iraitz Sarasola Lopetegi



11 Irudia: Epaimahaiaren saria jaso duen kartela



12 Irudia: Publikoaren saria jaso duen kartela



- **INDARTU. Genero indarkeriak prebenitzeko programa UPV/EHU:**

Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloaren Atarikoan esaten denez, unibertsitatearen helburua da *unibertsitatean giro segurua mantentzea eta sustatzea UPV/EHU osatzen duten pertsona guztientzat, genero indarkerietatik at*. Era berean, azpimarratzen da *unibertsitateak ez du[ela] genero indarkerien inongo adierazpenik onartuko eta bere esku dauden neurri guztiak hartuko ditu[ela] jarrera eta portaera horiei aurre egiteko*. UPV/EHUrentzat genero indarkeriaren eremuan sartzen diren jarrerak eraso egiten diote pertsonen berdintasun eskubideari eta osotasun fisikoari, psikikoari eta duintasunari. Protokoloaren bidez, *unibertsitateak konpromisoa hartzen du jarrera horiek prebenitzeko eta horiei irmo eta sendo aurre egiteko*.

Pedagogia feministetan oinarritutako metodologia bat erabiltzen da programa honetan, non esperientziaren bidezko ikaskuntzaren garrantzia aitortzen den. Gainera, zaintzaren etika ere txertatzen da, zeinaren arabera pertsonak bere osoan hartzen diren aintzat, beren alderdi guztiekin — fisikoa, kognitiboa, emozionala eta soziala— eta bestelako bideak erabiltzen diren jakintza sortu eta transmititzeko (antzerkia, irakurketak, batzarrak eta abar).

Testuinguru honetan sortu da esku hartze psikosozialerako **«INDARTU» PROGRAMA**, UPV/EHUko emakume ikasle gazteekin gauzatzekoa. **Lehen edizio pilotua** Bizkaiko Campusean egin zen, 2018/19 ikasturteko bigarren lauhilekoan, otsailaren 5etik apirilaren 9ra, hainbat ikastegitako bigarren mailako emakumeekin. Lehen edizio honetan guztira 22 emakumek hartu zuten parte, ikastegi eta maila ezberdinetakoak.

- **“Prevención y detección de las violencias de género en el contexto educativo” tailerra:** Tailer hau Gasteizko Hezkuntza eta Kirol fakultateko Hezkuntza sailean egin zen 3. mailako nesKentzat. Genero indarkeria kasu bati erantzuna emateko zeharkako interbentzio gisa antolatu zen zentroko dekanotzaren laguntzarekin. Formakuntza hau Eraikiz Kolektiboko Aitziber Bañuelosek egin zuen 2019ko urtarrilaren 21 eta 23an eta bertan guztira 30 ikasle neskak hartu zuten parte.

4. Unibertsitate hedakuntza

4.1.- Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

UPV/EHUko organo kolegiatuen amaierako osaera orekatua (gizonak eta emakumeak) lortzea ahalbidetzeko **kremailera erako zerrendak** bultzatzen ari gara. Horrekin batera, Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko ikastegietako berdintasun batzordeen jarraipena egin, eta haiekin harremanetan egoten da, eta ekimen guztietan parte har dezaten bultzatzen du.

4.2.- Adin txikien zaintzarako kontziliazio baimenen ekiparazioa

UPV/EHUko Emakume eta gizonen berdintasunerako III. Planean (2019-2022) onartuta dago eta bertan azaltzen du 4.3.5.- *Plan hau indarrean dagoen bitartean, apurka-apurka aitatasun baimena ezartzea; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek hemen zehaztutako hobetzen duen neurririk onartuz gero, UPV/EHUK bat egingo du hobekuntza horrekin. Aitatasun baimena ezin da besterenganatu. Plan hau indarrean sartu ondoren, 2019an baimena 8 astekoa izango da; 2020an, 12 astekoa; eta 2021ean, 16 astekoa. Eskari egileak aukeratuko du asteok nola banatu, baina, edozelan ere, baldintza hauek bete behar dira: lehenengo lau asteak jarraian hartu behar dira, etenik gabe, umea jaiotzen denetik edo umea hartzeko edo adopzio arrazoiengatik, legezko zaintzarako administrazio erabakia edo adopzioa gauzatzeko epailearen erabakia ematen denetik aurrera kontatzen hasita; gainerako asteak ezin dituzte bi gurasoek aldi berean hartu eta etenik gabe hartu behar dira erditze baimeneko zazpigarren astetik hamaseigarren astera doan tartea baino lehen edo tarte horren jarraian, edo beste gurasoaren adopzio baimeneko edo umea hartzeko edo adopzio arrazoiengatik, legezko zaintzarako baimeneko bosgarren astetik hamaseigarren astera doan tartea baino lehen edo tarte horren jarraian.*

Aitatasun baimena izenenarekin III Berdintasun Planean jasota dagoen baimen hori, Batzorde Intersektorialean 2019ko urriaren 28ko akordio bidez onartu zen, Eusko Jaurlaritzaren araudi aldaketa honi jarraiki, *adin txikiak zaintzeko kontziliazio baimenen ekiparazio izenpean*. Onartu ostean Gobernu Kontseiluan ere onartu zen 2019ko azaroaren 5ean. Gainera, hortik abiatuta, UPV/EHUko Kontziliazio Gidaren zirriborroa bukatuta, honen inguruko eztabaida zabaltzeko prestutasuna adierazten du Berdintasunerako Zuzendaritzak, 2020ko urte hasierarako utziz Gidaren aurkezpena, sindikatuen ekarpenak eta eztabaida.

4.3.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean

- **Martxoaren 8a:** 2019an ekitaldi akademiko instituzional honen hamargarren edizioa ospatu zen **Bizkaiko Campuseko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan**. Guztira 110 pertsona bertaratu ziren, 76 emakume eta 34 gizon.

Edizio honetan, aurrekoetan ez bezala, antolakuntza UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren esku egon zen zuzenean. Lehen aldiz, baita ere, ibilbide akademiko oparoa izan zuten bost emakume omendu ziren.

Jakintza arloa	Omendua
Gizarte eta Legen Zientziak	Adela Asua Batarrita
Zientziak	Maria Isabel Arriortua Marcaida
Arte eta Humanitateak	Lourdes Oñederra Olaizola
Osasun Zientziak	Begoña Ochoa Olascoaga
Ingeniaritza eta Arkitektura	Inmaculada Hernaez Rioja

Omenaldiaz gain, urtero bezala Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatu ziren. Lehen aldiz, Errektorearen eskutik izan beharrean, sariak omenduek banatu zituzten.



13 Irudia: 2019ko Martxoaren 8ko omenduak eta sarituak Errektorea, Errektoreordea eta Berdintasunerako Zuzendariarekin

- **Martxoaren 8ko ekitaldiko kartel lehiaketa:** 2019an lehen aldiz Martxoaren 8ko ekitaldiko kartel lehiaketa antolatu da eta honen helburua

Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalari publizitatea ematea da, bereziki ikasleen artean. Lehen edizioan guztira 6 ikaslek hartu dute parte.

- **Martxoaren 8ko oroigarri lehiaketa:** Martxoaren 8ko ekitaldi instituzionalean ematen diren oroigarriak aldatzeko beharra ikusi zen Berdintasunerako Zuzendaritzan. Hori dela eta, Arte Ederretako Fakultatearekin elkarlanean, deialdi hau antolatu zen eta azkenean hiru artistaren lanak jaso ziren. Deialdi honen bidez, hurrengo hiru edizioetako oroigarriak egingo dira.
- **Martxa Lila:** Urtero, Leioan (Bizkaiko Campusa) martxa bat egiten da, non unibertsitateko kide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta, lila koloreko objektu bat eramanez. 2019an V. edizioa ospatu da eta Zientzia eta Teknologiako Fakultatea izan da arduraduna.



4.4.- Diru laguntzetarako deialdia UPV/EHUn emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeko

Laguntza hauek jada finkatuta daudela esan daiteke, eskaera kopuru handia izaten da eta esparru ezberdinetako ekintzak finantzatzen dira urtero. Jarduerak gero eta espezifikoagoak dira sarri, genero ikuspegian gero eta gehiago sakontzeko asmoarekin.

Deialdi honetako 2019 urteko edizioan, 48 eskaera jaso dira, 38 emakume eta 10 gizon, guztira **26.868,99 euro** eman direlarik. Aurreko urteekin alderatuz eskatzaile kopuruak nabarmen gora egin duela ikus daiteke. Aurten ere askoren arazoa gehiegizko burokratizazioa izan da eta, hori dela eta, eskatzaile asko gero atzera bota dira. Orotara ia **2.700 pertsonak** baino gehiagok hartu du parte antolatutako ekintza eta jardueretan.

II Eranskinean zerrendatuta dauden 2019an finantzatu ditugun jardunaldi, biltzar edo mintegiak eta bertaratu diren parte-hartzaileen kopurua.

4.5.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan

2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 10era arte UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak **19 agerraldi** izan ditu komunikabideetan. 2018arekin alderatuta, jaitsiera txiki bat nabari da UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak izaniko agerpenetan. Horren arrazoietakoa bat 2018an Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa onartzea izan daiteke, berria Euskadiko komunikabide askotan agertu baitzen.

I. Eranskina

DOKTOREGAIA	JARDUNALDIA	NON
Laura Muelas De Ayala	V Congreso Internacional de Antropología AIBR "Pensar Culturas. Cambiar Mundos"	Madril
Miriam Del Pino Molina	V Congreso Internacional de Antropología AIBR "Pensar Culturas. Cambiar Mundos"	Madril
Alejandra Martínez Quintero	E-approaches to social difference and disparity	Australia
Maialen Altuna Etxeberria	V Congreso Internacional de Antropología AIBR "Pensar Culturas. Cambiar Mundos"	Madril
Monica Natalia Acosta Garcia	Congreso CIPIAL 2019 (Congreso internacional povos indígenas da América Latina)	Brasilia
Ione Bretaña Alberdi	XVI Congreso Europeo de Psicología	Mosku
Veronica De Los Reyes Mera	IV Congreso Nacional de Psicología	Gasteiz
Ana Belen Herreras Borbolla	XIII Congreso Español de Sociología	Valentzia
Tania Martinez Portugal	European Conference of Gender and Politics (ECGP)	Amsterdam
Judit Martinez Abajo	Congreso Ikergazte	Baiona
Aitor Renteria Dominguez	III International Congress of Phychology	Granada
Ane Lekuona Mariscal	Congreso Internacional Géneros y subjetividades en las prácticas artísticas contemporáneas	Madril
Miren Guillo Arakistain	AIBR V. Nazioarteko Antropologia Kongresua: Pensar Culturas Cambiar Mundos	Madril
Ander Azkarate Morales	AIDIPE 2019 XIX Congreso Internacional de Investigación Educativa: investigación comprometida para la transformación social	Madril
Idoia Galán Silvo	V Congreso Internacional de Antropología AIBR "Pensar Culturas. Cambiar Mundos"	Madril
Nerea Garcia Ventades	12ª EDICIÓN DEL SIMPOSIO DE JÓVENES INVESTIGADORES	Bordele
Amaia Soroa Bacaicoa	6TH ASYRAS Conference	Santander
Tchella Fernandes Maso	V Congreso Internacional de Antropología AIBR "Pensar Culturas. Cambiar Mundos"	Madril



II. Eranskina

ANTOLATZAILEA	JARDUERA	PARTE-HARTZAILEAK
Lidia Vázquez Jiménez	SEMINARIO INTERNACIONAL "VOCES DE MUJERES INSUMISAS"	163
Ibon Egaña Etxeberria	DIVERSIDAD DE GÉNERO EN LA INFANCIA	95
Aintzane Etxebarria Lejarreta	HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZA KONGRESUA (EUDIA-8)	30
Inge Axpe Saez	M8M(2019)	55
Maidor Koro Maraña Saavedra	PATRIMONIO: ACCESIBILIDAD E INCLUSIÓN	31
Francisco Javier Ruiz De Arcaute Graciano	SEXU, GENERO ETA FAMILIA ANIZTASUNA FORMAZIOA, JARDUERA FISIKOKO IKASLEEI ZUZENDUA	18
Irati Basoredo Otzerinjauregi	"Ekonomia, enpresa eta genero IV Jardunaldiak: Genero diskriminazioa ondasun eta zerbitzuak kontratatzerakoan"	112
Eva Velasco Balmaseda	"LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD EN LA EMPRESA"	162
Loreta De Stasio	RELATOS DE LUCHA Y VIOLENCIA	96
Marta Sarasa Maya	HAUR TRANSEXUALITATEA. ANIZTASUNAREN ADIBIDE BAT	241
Monika Ortueta Aldama	"CHARLA SOBRE COSMOLOGÍA DE LA PREMIO A LA INVESTIGACIÓN 2018 l'Loreal-Unesco awarded women for science"	450
Maria Olatz Fresnedo Aranguren	Descubriendo a nuestras científicas pioneras en la upv/ehu. Desde la homeostasis del colesterol hasta la política científica.	80
Jose Luis Arguiñano Herrarte eta Udane Goikoetxea Bilbao	"Zinemaldia: comunicación entre estrellas de cine"	35
Marina Ortega Andrés	Workshop interdisciplinar en cuestiones de género y lenguaje	22



Marta Luxan Serrano	LGTBIQ+ auziak Euskal Herrian	33
Maximo Fernando Fraga Cimadevilla	MUJERES MIGRANTES	76
Haizea Berceñilla Garcia	ZINEMALDIA: COMUNICACIÓN ENTRE ESTRELLAS DE CINE	44
Miren Ortubay Fuentes eta Eva Martínez Hernández	XII JORNADAS INTERDISCIPLINARES: TRANSFORMANDO DESDE EL FEMINISMO: NOSOTRAS PROTAGONISTAS	134
Estibaliz Alonso Ruiz De Erentzun	ZG JARDUERA PROFESIONALAK/ JORNADAS PROFESIONALES ZG	151
Iñaki Barcena Hinojal	"JORNADAS DE SEXOLOGIA SUSTANTIVA EN CONVERSACIÓN CON LA CIENCIA POLÍTICA"	131
Jon Mancisidor Uria	ARRASTOA: ILUSTRATZAILE ETA KOMIKI EGILE@K. 1. JARDUNALDIAK	206
Itziar Irigoien Garbizu	Emakume eta gizonen berdintasunaren eraikuntzan, gizonok zer?	20
Maria Rosario Arrazola-Oñate Tojal eta Andrea Abalia Marijuan	Proyecto Archivo-Artxibo Proiektua 2019	102
Iratxe Perez Urdiales	Derechos sexuales y reproductivos en Mesoamérica y Euskadi. Una mirada feminista	30
Ana Luisa Lopez Velez	Sexu, genero eta familia aniztasuna	12
Maggie Bullen	Perspectivas sobre los derechos, naciones, estados y fronteras desde la filosofía feminista" y conferencia de Francesca Gargallo sobre "Las fronteras del feminismo: mujeres y migraciones en América Latina	56
Itxaso Fernandez Astobiza	Transexualitatea eta komunikazioa	31
Eugenia Marin Garcia	La historia perdida de las mujeres en la Psicología	103